

«Hegatsez», liburu berria

“Hegatsez” izenburuarekin, gaurko euskal idazleen hizlaurko* bilduma eder bat eskaini daukute Serafin Basauri eta Juan San Martinek. Irakurgai biziak nahi dituztenek batez ere, laguntza haundia aurkituko dute bilduma honetan. Beste askoren artean, gaurko idazle hauk agertzen dira: L. Akesolo, J. L. Alvarez, Aresti, R. Arregi, I. Berriatua, Erkiaga, S. Garmendia, X. Gereño, X. Kintana, Mitxelena, I. Sarasola, Satrustegi, Villasante, Zelaieta eta K. Santamaria. Liburu interesgarria, batez ere euskal alfabetatzean ari direnentzat eta gai bati loturiko liburuak irakurtzen aspertzen direnentzat.